

9.– ETXEKOAK



Pizti batzuk geure-geure lez artuta daukaguz eta orrein artean egazti batzuk.

Lenengo aldian gizakiak, aragia jan bear ba'eban, eizara joan bear izaten eban eta asmakizun aundia izan zan piztiak etxean eukitea, orixe da ekonomian gizakiak egin dauan eraultzarik aundiena. Etxeko piztiak jaten dauz, txitak eta oillaskoak etxean azita eta gainera arrautzak eta olako ondorenak.

Etxeko egaztirik zarrena, bear ba'da, oilloa izango da. Asia'ko lur beroetatik ekarria da. Pertsia'tik eta Ejipto'tik Europa'ra sartua. Erroma'n be oillo asko egoan eta oillarra zan Gallia'n toten edo erriko ikur dan piztia, pizti sagaratua. Erroma'n gainera, aztiak (magoak) egaztien erraietatik ezagutzen eben etorkizuna.

Orduko basa-oillarra (paboa) bizi da gaur be. Oilloaren lako ogei arrautza egiten dauz.

Antzarrak eta aateak egiptoarrak dira jatorriz. Etxe-antzarrak asko maite ebezan Erroma'n. Guda baten, galiatarren aurka zan, kapitoloan egoan antzar sagaratuen taldea garrazika asi zan eta arerioak etorri ziranean erromatarrek itxarrik aurkitu ebezan, guda egin eta irabazi ebin eben. Arrezkero antzarrari gurtza emoten jako.

EGAZTI KOROTZ-EGILLEAK

Peru'n bizi dira Karmoranak eta alkatzazak, amabost milloiko taldeetan. Urtean 5 milloi tonelada arrain jaten dabez.

Zertarako balio ete dabe?

Euren korotzagaz guano deritxon zimaurre egiten da eta oso ona da azukera, algodoi eta beste landara batzuen ongari lez.

Ugarte baten bizi dira txori orreik eta egazkin-talde baten besteko zaratea ateraten dabe. Arrizko abiak egiten dabez taldeka eta an asten dabez bikote bakoitxak bere ume bi. Eta ondo ezagutzen dabez bikoteak euren umeak eta nasterik sortu ezkerro burrukak izaten dira.

Korotzak an geratzen dira edur-antzeria eta urteetan pillatu ondoren pikatxoiz ateraten dabe eta soloetara eroan. Inka esaten jakon agintaritzia aldian be onartzen zan ongari au. Gaur be bai Peru'n.

OLAZAR'tar Martin'ek



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

